Gaetano Donizetti

ABAO | BILBAO OPERA

# MARIA STUARDA

14, 17, 20, 23 | Otsailak / Febrero 2026

**OPERA FIRST AID KIT**



GAZTEAM

ABAO | BILBAO OPERA

# FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTISTICA



## MARIA STUARDA

| | |
|---|---|
| Maria Stuarda | Yolanda Auyanet |
| Elisabetta | Maria Barakova |
| Roberto, Conte di Leicester | Filip Filipovic |
| Giorgio Talbot | Manuel Fuentes |
| Anna Kennedy | Cristina del Barrio |
| Lord Guglielmo Cecil | Milan Perisc |
| ORQUESTA | Euskadiko Orkestra |
| CORO | Coro de Ópera de Bilbao |

# FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTISTICA



| | |
|---|---|
| DIRECTOR MUSICAL | Ivan López Reynoso |
| ASISTENTE DIRECTOR MUSICAL | Kiko Moreno |
| DIRECTORA DE ESCENA | Emilio Lopez |
| ASISTENTE DIRECTOR DE ESCENA | Raul Vazquez |
| ESCENOGRAFÍA | Carmen Castañon |
| ILUMINACIÓN | Oscar Frosio |
| VESTUARIO | Naiara Beistegui |
| DIRECTOR DE Leioa Kantika Korala | Esteban Urcelai |
| MAESTROS REPETIDORES | Manuel Navarro, Iñaki Belasko |
| FIGURACIÓN | Eneko Momoitio<br>Guillermo Laborda<br>Imanol Vinagre<br>Iosu Padilla<br>Javier Borrego<br>Julen Ibisate<br>Peio Arrien<br>Sergio Fontán |
| PRODUCCIÓN | ABAO Bilbao Ópera<br>Fundación Ópera de Oviedo |

# Situémonos...

GAZTEAM

Hoy vamos a hablar de Maria Stuarda de Donizetti y, ojito, porque no es una ópera cualquiera, estamos ante uno de los ejemplos más potentes e representativos del bel canto. Lo primero: ¿De qué va esta ópera? Maria Stuarda narra el enfrentamiento entre María, reina de Escocia, prisionera en Inglaterra, e Isabel I, que, movida por celos políticos y amorosos, acaba firmando su sentencia de muerte. María afronta la ejecución con dignidad, perdón y grandeza moral, convirtiendo su final en una victoria espiritual.

Esta ópera es clave en la literatura de Donizetti porque fue musicalmente muy ambiciosa y la que más sufrió de censura y escándalo. En Nápoles, directamente fue prohibida ¿por qué? porque tenía violencia explícita, representaba conflictos entre monarcas y había insultos directos en escena. El famoso insulto "vil bastarda", hizo que muchas personas se echaran las manos a la cabeza y tras eso, la ópera fue cancelada después del ensayo general. En Milán, otra polémica, estreno fallido. El reparto fue inestable, algunos músicos enfermaron y hubo censura de nuevo junto a cambios forzosos de texto a última hora... Sin embargo, el público quedó conmocionado, pero se volvió a generar tal escándalo que se prohibió que se volviera a representar.

Esta ópera nos permite reflexionar mucho también sobre aquello que entendemos por bel canto. Hemos de preguntarnos, ¿De dónde procede esta etiqueta? Tenemos que aclarar que, no era ni un ideal abstracto ni una marca estética (como entendemos en la actualidad), sino el resultado de una técnica vocal concreta, desarrollada y perfeccionada por los castrati a través del entrenamiento extremo y prolongado en el tiempo. Este arte está basado en la flexibilidad extrema de la voz (pasajes rápidos, complejos, largas frases sin interrupción), el control del aliento (una gestión precisa y económica del aire, la capacidad de aguantar grandes líneas) y la ornamentación virtuosa, adaptando todo esto a las capacidades individuales del cantante. Vamos, que el bel canto como tal no era un modelo vocal único, se podría considerar una especie de "gimnasio" de cantantes. Ahora bien, todo esto se complica, pues en cuanto desaparecieron los castrati esta práctica también lo hizo, ya que muchas de sus enseñanzas se produjeron a través de la tradición oral.

De todo esto quedó un mito, una especie de ideal al que aspirar, y ahí es cuando la etiqueta renace en los compositores como Bellini o Donizetti. Realmente cuando la utilizamos en la actualidad, nos referimos a una forma de cantar asociada a la ligereza, la elegancia y el virtuosismo. Y sobre todo, se entiende como un estilo que es opuesto a Wagner (se utilizaba más para decir lo que no es, que lo que es). Lo malo de utilizarla tal cual hacemos en nuestros días, es que se pierde lo más importante de lo que significaba realmente: un sistema pedagógico profundo, el entrenamiento musical a través de los solfeggi y la relación viva entre el compositor y el cantante. Sea como fuere, estamos ante una ópera muy especial, les invitamos a que pongan toda su atención, sobre todo al dúo final entre María e Isabel, pues es considerado el momento musical más brillante de toda esta obra. ¡Que la disfruten!



# Koka gaitezen...

GAZTEAM

Gaur, Donizettiren Maria Stuarda operaren gainean hitz egingo dugu, eta, erne, ez delako edozein opera, baizik eta bel cantoaren adibide indartsu eta adierazgarrienetakoa. Lehenik eta behin: zeri buruzkoa da opera hau? Maria Stuarda-k bi erregina hauen arteko liskarra kontatzen du: Maria, Eskoziako erregina, Ingalaterran espetxeratua; eta Isabel I.a, jeloskortasun politiko eta maitasunezkoak bultzatuta azkenean lehenengoaren heriotza-epaia izenpetuko duena. Mariak duintasunez, barkazioz eta handitasun moralez egingo dio aurre exekuzioari, eta, horrela, bere amaiera garaipen espirituala bihurtuko du.

Opera hau funtsezkoa da Donizettiren literaturan, musikalki oso anbiziotsua izan zelako, batetik, eta zentsura eta eskandalu ikaragarriak jasan zituelako, bestetik. Napolin, debekatu egin zuten, zuzenean, zer eta indarkeria esplizitua agertzen zuelako, erreginen arteko gatazkak irudikatzen zituelako eta agertokian irainak nabarmenki botatzen zituztelako. “Bastart doilorra” irain famatuak pertsona asko eskandalizatu zituenez, opera bertan behera utzi zuten entsegu orokorraren ondoren. Milanen, beste polemika bat: huts egindako estreinaldia. Abeslari-taldea ezegonkorra izan zen, musikari batzuk gaixotu egin ziren, beste behin zentsura pairatu zuen eta azken orduan testuan aldaketak egitera behartu zituzten... Hala ere, publikoa asaldatuta geratu zen, baina halako iskanbila sortu zen berriro, ezen gehiagotan antzeztea debekatu zen.

Era berean, opera honek bel cantotzat jotzen dugunari buruz sakon hausnartzeko aukera ematen digu. Geure buruari galdetu behar diogu: zein da etiketa horren jatorria? Argitu behar dugu ezetz, ez zela ez ideal abstraktu bat ez marka estetiko bat (gaur egun ulertzen dugun bezala), baizik eta ahots-teknika zehatz baten emaitza, castrati zirelakoek muturreko entrenamenduaren bidez denbora luzez garatu eta hobetu zutenarena, hain zuzen ere. Arte horren oinarriak hiru dira: ahotsaren muturreko malgutasuna (pasarte azkarrak, konplexuak, etenik gabeko esaldi luzeak), arnasaren kontrola (airearen kudeaketa zehatz eta ekonomikoa, lerro handiei eusteko gaitasuna) eta apaindura birtuosoa; hori guztia abeslari bakoitzaren gaitasunetara egokituta. Laburbilduta, bel cantoa berez ez zen ahots-eredu bakarra; abeslarien “gimnasio” moduko bat zela esan liteke. Dena den, hori guztia nahasi egiten da, castrati haiek desagertu zirenean kantatzeko modu horrekin gauza bera gertatu zelako, irakasten zituen kontuetako asko ahozko tradizioaren bidez jasotzen baitziren.

Horrek guztiak mito bat sortzea eragin zuen, gauzatu beharreko ideal bat, nolabait, eta orduan berpiztu zen etiketa Bellini eta Donizetti musikagileengan, besteak beste. Gaur egun erabiltzen dugunean, arintasunari, dotoreziari eta birtuosismoari lotutako kantatzeko modu batez ari gara. Eta, batez ere, Wagnerren kontrako estilotzat jotzen da (gehiago erabiltzen zen zer ez den esateko, zer den esateko baino). Egun ematen diogun erabileraren alde txarra da bere benetako esanahiaren gauzarik garrantzitsuena galtzen dela: sistema pedagogiko sakona, solfeggi-en bidezko musika-entrenamendua, eta konpositorearen eta abeslariaren arteko harreman bizia. Dena dela, Maria Stuarda oso opera berezia da; beraz, eskain iezaiozue zuen arreta osoa, batik bat Mariaren eta Isabelen arteko amaierako duoari, obra honetako une musikal bikainenentzat jotzen baita. Goza dezazuela!







GAZTEAM

**GAZTEAM · ABAO Bilbao Ópera**

gazteam@abao.org / www.gazteamabao.org

@gazteam.abao